

1.400 nahi dugu!

euroko gutxieneko soldata

Hego Euskal Herriko langileen %52k 1.400 eurotik behera jasotzen du. Aldiz, Iberdrolako lehendakari Sanchez Galanek, adineko egoitzetako 660 langilek adina irabazten du.

EAEn nahiz Nafarroan 1.400 euroko gutxieneko soldata ezarriko duen Akordio Interprofesionala sinatzeko eskaria egiten diogu Confebask eta CENi.

Garbitzaileak, merkataritzako langileak, zaintzaileak, sukaldariak, begiraleak... gara. Pandemia betean esaten zuten funtsezko zerbitzuak zirela gureak. Ezinbestekoak. Lanera joan beharra genuen, nahitaez; kasu askotan, eskolak eta eguneko zentroak itxi baitzituzten, haur nahiz helduak geure zaintzapean bagenituen ere. Ezin ginen gelditu, ezinbestekoak ginen.

Baina ezinbestekoak izanda, zergatik dira horren gaizki ordainduak geure lanbide hauek? Nagusiki emakumeok egiten ditugun lanbideak direlako. Eta Patronalak emakumeon prekaritatearen kontura gizentzen dituelako bere etekinak.

Horregatik heldu gara CEN eta Confebask patronalen egoitzen aitzinera, dagokigun aitortza eta ordainsaria aldarrikatzera. Patronalak zor bat dauka gurekin, zor patriarkala, bi aldiz aberastu delako gure lanarekin. Batetik, gure enplegu prekarioei esker aberastu da. Bestetik, etxean egiten ditugun zaintza lanez baliatu delako (batez beste, kasik 38 ordu astero, gizonek baino 13 gehiago); horiek gabe, enpresek ezin izango lukete martxan jarraitu.

Patronalak zor bat dauka emakume langileokiko. Bada garaia ordain dezan. Eta hartu beharreko neurri desberdinen artean, honako hau azpimarratu nahi dugu: 1.400 euro gordineko gutxieneko soldata. Kasu askotan, kopuru hori ere ez da nahikoa gure lana ordaintzeko, baina eska daitekeen gutxienekoa da. Euskal Herriko batez besteko soldataren %60 da 1.400 euro.

Gaur egun, Euskal Herriko langile gehienek jasotzen dute 1.400 euro baino gutxiago:

- 257.000 pertsona daude inaktibo gisa izendatuak eta ez dute soldatarik jasotzen; horien artean,

182.000 lagun [gehienak emakumeak] etxeko zaintza lanetan ari dira.

- 156.000 lagun daude langabezian.
- 356.800 [soldatepeko guztien %34] dira 1.400 eurotik behera jasotzen duten langileak.
- Beraz, populazio inaktibo gisa konputatzen dituzten, langabezian dauden eta 1.400 eurotik behera jasotzen duten langile kopurua, batuta, 769.900 da [langile guztien %52,7]. Horietako gehienak emakumeak dira.

1.400 euroko gutxieneko soldata zor zaigun gutxienekoa da. Eta badago nahikoa baliabide hori bermatzeko. Arazoa da soldatek Barne Produktu Gordinarekiko pisua galtzen joan direla urtez urte. Alegia, sortzen den aberastasunetik gero eta zati txikiagoa doa langileon poltsikoetara. 2008an Barne Produktu Gordinean soldatek zuten portzentaia berreskuratuko bagenu, 3.500 milioi euro gehiago jasoko genuke langileok.

Hemen gauden langileon eta Patronaleko buruen ordainsarien arteko desberdintasunari erreparatzea besterik ez dago. Esate baterako, Iberdrolako lehendakari Sanchez Galanek hilero 850.000 euro jasotzen ditu, adineko egoitzetako 660 langilek, elikagaien merkataritzako 766 langilek edota garbiketako 799 langilek bezainbeste.

Ez dago aitzakiarik. 1.400 euroko gutxieneko soldata bidezkoa ez ezik, bideragarria da. Estatu mailan ezarrita dagoen gutxieneko soldata ez da nahikoa Hego Euskal Herrian etxebizitzak eta oinarritzko beharrek duten prezioari aurre egiteko. Hori dela eta, gutxieneko soldata propioa arautuko duen Akordio Interprofesional bana sinatzea exijitzen diegu Confebask eta CEN patronalei.

